

TOLOSAKO UDALA

2014 MAI. 22

IRTEERA - ERREGISTROA
ZKA. A20

Honekin batera bidaltzen dizuet Tolosako udalbatzak, 2014ko apirilaren 29an egin zuen Ohizko Osoko Bilkuran onartutako mozioaren ziurtagiria, SOS Arrazakeriak aurkeztutakoa.

Adjunto a la presente envió certificación de la moción aprobada por el Ayuntamiento Pleno Sesión Ordinaria, celebrada el 29 de abril de 2014, sobre la moción presentada por SOS Racismo.


Begirunez,

Atentamente,

Tolosan, 2014ko maiatzaren 22an

ALKATEA

Ibai Iriarte San Vicente



Sos Racismo Gipuzkoa
Paseo Zarategui 100
20015 Donostia (Gipuzkoa)



JOSE LUIS UNANUE UGALDE, Tolosako Udaleko idazkaria.

JOSE LUIS UNANUE UGALDE, Secretario del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa.

NEUK ZIURTATUA:

CERTIFICA:

Udalbatzak, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita bederatzian egin zuen Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuela:

Que, en sesión Plenaria Ordinaria celebrada el día veintinueve de abril de dos mil catorce, se adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

8.- Ceutan gertatutakoari buruz SOS Arrazakeriak aurkeztutako adierazpen instituzionala.

8.-Declaración institucional presentado por SOS Arrazakeria sobre los incidentes ocurridos en Ceuta.

Lehenik Idazkariak mozio hau irakurri du:

"Joan den otsailaren 6an, Ceutara iritsi nahian gutxienez 15 lagun hil izanak eta Guardia Zibilak haien aurka erabilitako indarkeriak iritzi publikoak asaldatu du.

"La muerte de el pasado 6 de febrero de, al menos, 15 personas que junto a otras trataban de acceder a Ceuta, y la forma como fueron reprimidas por la Guardia Civil, ha impactado en la opinión pública.

Nazioarteko zuzenbide humanitarioak agintzen dien bizitzaren babesaren gaintik mugen kontrola lehenestea ez dator bat gure legeriarekin, ez eta gure balio moralekin.

No es compatible con nuestra legislación ni con nuestros valores morales una actuación que antepone el control fronterizo a la salvaguarda de la vida a que obliga el derecho internacional humanitario.

Nola ahaztu, halaber, kanporatuak izan diren edo ihesera jo duten pertsona horien herrialdeetako egoera ekonomiko eta sozialean Europako Batasunak duen erantzukizuna.

Ni podemos olvidar la responsabilidad de la UE en la situación económica y social de los países de los que estas personas se ven expulsadas, o de los conflictos de los que huyen muchas de ellas.

Gertaera hauek berriro nabarmen erakutsi dute ze ondori dakartzan Europako Batasunaren migrazio politika mugen blindatze tematian oinarritzeak: Mediterraneo eta EBeko hego muga hobi komun bihurtu dira.

Estos hechos ponen de relieve una vez más, las consecuencias de una política migratoria obsesionado con el blindaje de las fronteras que está convirtiendo el Mediterráneo y la frontera sur de la UE en una inmensa fosa común.

Ceutako eskuhartzeak gizarte zibilaren eta politikarien gaitzaspenera eragin du, eta poliziaren jokaeraren kritikaz gain ikerketa independentea eta erantzukizun politikoak ere eskatu dira.

Esta actuación ha levantado un clamor, tanto en la sociedad civil como en la clase política, criticando la actuación policial, demandando una investigación independiente y exigiendo responsabilidades políticas.

Gertatutako guztiari Espainiako barne ministroak argibide sinesgaitzekin erantzun dio, Guardia Zibilaren jokaera babestu du eta uko egin dio Guardia Zibileko zuzendaria kargugabetzeari, zeinaren dimisioa aho batez eskatu den.

Frente a ello, el ministro del Interior español, se ha enrocado en explicaciones poco verosímiles, ha defendido la actuación de la Guardia Civil y se ha negado a cesar al Director de la Guardia Civil, cuya dimisión ha sido unánimemente solicitada.

Horretaz gain, Espainiako gobernuak iragarri du legeetan aldaketak egiteko asmoa duela, etorkizunean poliziaren jokaera horiek babesteko. Jarrera hau bereziki larria iruditzen zaigu, gertatutakoa onartzeaz gain espainiar eta europar legeriak egun babesten dituen eskubideen murrizketa ekarriko duelako.

Por el contrario, el gobierno español avanza su intención de realizar los cambios necesarios en la ley para avalar dicha actuación policial en el futuro. Esta posición nos parece particularmente grave, ya que no sólo avala lo sucedido sino que avanza un recorte aún mayor de los derechos que hoy consagra la legislación española y comunitaria.


Honengatik guztiagatik, udal honek

1. Ceutara iritsi nahian otsailaren 6an hildako pertsonen heriotza deitoratzen du, eta bere doluria eskaintzen die haien senide eta lagunei.
2. Guardia Zibilaren jokaera gaitzesten du, bizitza arriskuan zuten pertsonak lagundu ordez, haien kontra jotzeagatik.
3. Gertaerak ikertzeko batzorde independente bat sortzea eskatzen du, eta erantzukizun politikoak bere gain hartu behar dituenak har ditzala, baita Guardia Zibileko zuzendari orokorraren dimisioa ere.
4. Espainiako gobernuari eskatzen dio ez dezala lege aldaketarik egin espainiar estatuko lurraldeetara iritsi nahi duen jendeari egun onartzen zaizkion eskubideak mugatzeko. Bereziki deigarria da espainiar gobernuak aurreratutako asmoetan, aterpe bila dabiltzan pertsonen nazioarteko babesa eragotziko liekeela.
5. Europako Batasunari dei egiten dio migrazioekiko politikak aldatzeko eta, pertsona migratzaileen asmoei errepresioa eta kontrol handiagoa ezarri ordez, erantzun egokiak eta gizalegozkoak emateko urratsak egin ditzan."

Jarraian, mozioa bozketara jarri da eta Udalbatzak, aho batez, onartu du.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Alkatearen onspenarekin, Tolosan, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeian.

O.E. / Vº.Bº
ALKATEA / EL ALCALDE



Por todo ello, este ayuntamiento

1. Lamenta profundamente la muerte de las personas que trataban de acceder a Ceuta el pasado 6 de febrero y hace llegar su condolencia a sus familiares.
2. Critica la actuación de la Guardia Civil reprimiendo a personas cuya vida estaba en peligro, desentendiéndose de su obligación legal de prestarles auxilio.
3. Pide la creación de una comisión independiente que investigue lo sucedido y exige que se asuman las correspondientes responsabilidades políticas, incluyendo la dimisión del Director General de la Guardia Civil.
4. Insta al gobierno español a no realizar modificación legislativa alguna que suponga la merma de derechos hoy reconocidos a las personas que intentan acceder a territorio del estado español. En particular, llama la atención de que las intenciones avanzadas impedirán el acceso a la protección internacional a personas en busca de refugio.
5. Solicita a la Unión Europea que modifique su política sobre la migración y que, en lugar de la represión y de establecer más controles, dé los pasos necesarios para proporcionar una respuesta más adecuada y digna a las aspiraciones de las personas migrantes."

A continuación, el Ayuntamiento Pleno vota la moción que queda aprobada por unanimidad.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, con el Visto Bueno del Alcalde, en Tolosa, a veinte de mayo de dos mil catorce.

